

JARDUERA PLANA 2021

Doktorego Eskolaren (DOKe) Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema betetzeak esan nahi du, gure 1. prozesuaren barruan (Plangintza eta politika eta kalitate helburuak), urtero ezarriko direla eskolako zuzendaritzak zehaztutako ildo estrategikoetan aurrera egiteko ekintza espezifikoak.

Proposatutako jarduera planak barne hartzen ditu DOKe-ko Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemako prozesuei eragiten dieten ekintzak.

KALITATE POLITIKA ETA HELBURUAK

Funtsezkotzat jotzen da DOKe-ren zutabeak finkatzea eta planteatutako erronkak eta helburuak betetzeko beharrezkoak diren jarduerak hedatzea.

1. MASTER ETA DOKTOREGOKO TITULAZIOAK

- Gestionatzea doktorego programak eta laguntza ematea.
- Gestionatzea Graduondoko Sare Latinoamerikarreko doktorego programen eta masterren eskaintza 2021/22 ikasturterako.
- Gestionatzea titulazioak bertan behera utzi edo migratzeko prozedurak, hori egitea beharrezkoa denean.

1.1. JENDEA ERAKARTZEA

- DOKe-ko titulazio eskaintza zabaltzea ikasle izan daitezkeen artean eta interes taldeen artean.
- DOKEe-ren webgunea osatzea eta egokitzea, eta interes talde guztiei sarbidea erraztea.

1.2. ONARPENA ETA MATRIKULAZIOA

- Ikasleei laguntza ematea izena ematean eta matrikula egitean doktoregoko programetan eta Graduondoko Sare Latinoamerikarreko masterretan.
- Matrikulan, dedikazioan eta aldi baterako eta/edo behin betiko bajetan aldaketak kudeatzea.
- Doktorego programetako ikasleak ebaluatzeko protokolo bat ezartzea, ebaluazio negatiboak dituzten akten jakinarazpena arintzeko.

1.3. BEKA, TITULU ETA ZIURTAGIRIEN KUDEAKETA

- Doktoregoko programetan TGE ezartzeko lankidetzan aritzea.
- Aurreko ikasturteetako master tituluak eman eta kudeatzea.

1.4. LANBIDE ORIENTAZIOA ETA LANERATZEA

- Doktore berriei harrera egiteko jardunaldiak antolatzea.
- Industriara transferi daitezkeen eskumenen katalogoaren definizioan egokitzea.
- Enplegarritasunerako jarduerak izapidetzea eta hedatzea UPV/EHUko eta beste

erakunde batzuetako lan zentroekin lankidetzan.

1.5. PRAKTIKAK

- Praktikak enpresetan egiteko programetan lankidetzan aritzea eta arlo horretako deialdiak zabaltzea doktorego arloko prestakuntzarako praktikak bultzatzeko.
- Praktiken eta doktoregoko prestakuntza egonaldien gestioa erraztea.
- Oraindik DOKE-n menpe dauden materretako ikasleen praktiken gestioan laguntzea.
- Praktiges aplikazioaren inplementazioa bultzatzea, doktorego praktikak informatikoki kudeatzeko.

1.6. NAZIOARTEKOTZEA

- Doktoregoko ikasleak nazioarteko mugikortasun programetan parte hartzeko aukerak zabaltzea hitzemanak kudeatuta.
- Nazioarteko mugikortasun programen esparrutik kanpo egindako nazioarteko egonaldiak protokolizatzea eta kudeatzea.
- Tesiak tutoretza partekatuko erregimenean izapidetzea eta nazioarteko aipamenari buruzko orientazioa ematea.

1.7. MASTERREN ETA DOKTOREGOEN JARRAIPENA

- Graduondoko Sare Latinoamerikarreko doktorego programen eta masterren jarraipen autotxostenak kudeatzea.
- Doktorego programak egiaztatzeko prozedura babestea, hala nola, beharrezko ebidentziak lortzea erraztuz.
- Doktorego programak egiaztatzeko autotxostenak kudeatzea.
- UNIBASQen bisita panelen kudeaketan laguntzea, tituluen akreditazioa berritzeko prozesuaren barruan.

1.8. DOKTOREGOKO PRESTAKUNTZA PROGRAMAK ETA GARAPENA

- Bultzatzea doktore titulua eskuratzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta trebetasunak lortzera bideratutako jarduerak.
- Doktorego programen berariazko prestakuntza sustatzea, eta prestakuntza horretara bideratutako dirulaguntzak kudeatzea.
- DOKE-k antolatutako zeharkako prestakuntza diseinatzea eta kudeatzea.
- Ikerketa jardueran euskararen erabilera sustatzea.
- Prestakuntza jarduerak antolatzea eta gestionatzea beste unibertsitate eta kanpoko eragileekin lankidetzan.
- Arreta psikologikoko zerbitzuarekin elkarriketa ezartzea, doktorego aldiari lotutako osasun mentaleko arazoari aurre egiteko eta etorkizunean kolektibo horri zuzendutako ekintzak ezartzeko.

1.9. DOKTOREGOKO IRASKETAK AMAITU DITUZTENAK AINTZATESTEA

- Pandemiaren bilakaeraren arabera, doktore berrien inbestidura ekitaldia antolatzea.
- Pandemiaren bilakaeraren arabera, doktoregoko aparteko sariak banatzeko ekitaldia antolatzea.

1.10. ALIANTZAK

- Barneko eta kanpoko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, doktorego prestakuntza esparru guztietan kudeatzeko sinergia jarduera ahalbidetzeko.
- *Enlight* partzuergoan parte hartzea.

2. GIZA BALIABIDEAK

- Giza baliabideak kudeatzea eta DOKe-k dotazio egokia duela bermatzea.
- Ikasleen ordezkariak DOKe-n parte hartzeko bideak erraztea.
- DOKe-ko ikasleentzako bilera guneak eta lan guneak ahalbidetzea.
- AZPkoen parte hartzea sustatzea bere zereginen banaketan eta kategorizazioan.

3. EKONOMIA

- DOKe-ko aurrekontu arrunta kudeatzea.
- Kanpoko finantziarioa lortzea eta kudeatzea.

4. KOMUNIKAZIO PLANA

- Web gunea bultzatzea eta informazioa hobetzea, batez ere DOKe-k gestionatzen dituen prozesuei buruzkoa.
- DOKe-ko ikasleentzako eta irakasle-ikertzaileentzako informazio garrantzitsua zabaltzea.
- DOKe-k egiten dituen jarduerak argitaratzea eta hedatzea.
- Beste eskola eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzea DOKe-n jarduerak etengabe hobetzeko.
- Ingelesaren erabilera handitzea, ikasle guztiei behar bezala komunikatzeko eta informazioa emateko.
- Doktoretzari lotutako errektoretza zerbitzuekin komunikazio prozesu eraginkorrak diseinatzea eta abian jartzea sustatzea; besteak beste, Graduondoko Zerbitzua eta Ikasketen Antolamendurako arloa.
- DOKe-ko langileen eta programetako batzorde akademikoen arteko komunikazio prozesuen hobekuntzan aurrera egitea, izapideen kudeaketa eraginkorra sustatuz, bai eta programei buruzko komunikazio sistematikoa ere.

5. BERRIKUSPENA ETA HOBEKUNTZA

- DOKEren Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema (KBBS) UNIBASQi ezartzea eta egiaztatze eskaera.
- Hobekuntzarako jarduera berriak identifikatzea eta gauzatzea.
- KBBSrekin lotura duten taldeak parte hartzera bultzatzea.
- Interes taldeek ikastegiaren titulazioekin eta kudeaketarekin duten gogobetetasuna jasotzea.